

## CÓMO MEJORAR EL ESTUDIO Y APRENDIZAJE DE TEXTOS DE CARACTER CIENTÍFICO

Nekane Balluerka Lasa

Euskal Herriko Unibertsitateko Argitarapen Zerbitzua, Bilbo, 1995

Lan mardul bat plazaratzen dela jakiteak poztu egiten gaitu. Eta orain aipatzera goazena horietarikoa dugu ezbairik gabe, zeren landua, sakona eta txukuna izateaz gain komunitate zientifikoarentzat probetxuzkoa ere baiteritzogu. Besterik gabe murgil gaitezen bere barrenean.

Ikaskuntza eta irakaskuntzako profesionalok, "naturalki", memoriara eta ulermenera errekurritzen dugu ezagutza ahalbideetan parte hartzen duten prozesuz gehiagoko gogoetarik egin gabe. Esku artean dugun obrak, hain zuzen, testuen bidez ikaskuntzaren oinarritzko ustekizunak ikertzen ditu, material esanguratsuen ikasketa moldatzen duten faktore garrantzizkoenak azpimarratuz.

Ikerketak garatzen duen testu-inguru orokorra ezagutza Psikologia esperimentalaren eta hezkuntza Psikologiaren gurutzunean datza, bereziki instrukzioen eta testuen Psikologiari lotzen zaiolarik. Ikaskuntza egoera batekin aurrez aurre aurkitzean eta, are, testuaren ikasketarekin, nola kodifikazioa hala materialaren erreku-perazioa zenbait faktoreren dependentsian sartzen dira. Horien artean azpimarratzekoenak, testuaren izaera bera, ikasten dugunaren froga tipoa, ikaslearen ahalbideak eta izaera pertsonala dira. Faktore hauek guztiek, garrantzia berezi bat daukate, testuaren ikasketak eta oroitzapena faboretzen duten teknika desberdinen

edo laguntza tipoen efikazia neurtzeko orduan.

Ikasketako estrategia arras ezagunetarik bat testuan aipatutako edukinen eskema egitekoa ohi da, baina, pertsona guztiek ez dute izaera bera, ezta testu guztiek ere egituraketa mental bera. Egiatzen honek liburuaren egilea gaiarekin zerikusian dauden galdera batzuk formulatzera darama. Agian, testu narratiboak eta testu zientifikoak molde berean prozesatzen ote dira? Testu zientifiko guztiek ikasketak tekniken antzeko erabilpena jokuan jarrarazten ote dute? Estrategien efektuak enpirikoki kontrasta daitezkeenak ote dira? Ikasketako estrategia jakinen erabilpena, eta orohar testu zientifikoaren prozesamendua, faboratuko edo oztopatuko lukeen izaera pertsonal diferentzialik ematen ote da?

Ikerketa kokatzen den paradigma esperimentala eta testuingurua mugatu eta gero, obraren xede orokorra aborrotzen da, hots, ikasketako laguntza eta tekniken serie bateko efektuen azterketara igarotzen da, materialaren izaeraren funtzioan eskema gidatua eta marrazkia, ikasketa eta ebaluaketako forma eta sujetuen karakteristikak ezagutzera, alegia.

Agertutako planaren arabera, bi bloketan zatikatuaz eratzen da ikerketa. Lehenean, ikerketaren alde esperimentalean sakonki aztertzen diren aspektuak eztabaidatzen dira, eta kon-

tsiderazio hau obra, hots, testuaren izaera, laguntzak, ebaluaketa frogak, eta sujetuen karakteristikak behar bezala ulertzeko funtsezko gertatzen da. Honela, lehen atalean, lana kokatzen den testuinguru teorikoa eta aplikatua mugatzen dira. Bigarrenean, ikerketetan erabili ohi diren testu tipo diferenteak aipatzen dira. Hiru eta laugarren ataletan, testuen ikasketan garrantzi handieneko kontsideratzen diren laguntzak eta material tipo horren ikasketa ebaluatzeko dauden formak aztertzen dira. Bosgarrenean, testuen prozesamendu orduan influentzia eragin dezaketen izaera indibidualko karakteristikien serie bat aipatzen da.

Bigarren blokean sekuentzialki egituratutako bost esperimendu agertzen dira, zeinetan Euskal Herriko Unibertsitateko eta ikasketa ertainetako ikasleek protagonismoa baita. Horrela, seigarren atalean, sarrera labur batean esperimendu bakoitzarentzat jarriko xedeak mugatzen dira. Zazpi, zortzi eta bederatzigarren ataletan testu zientifikoaren ulermenean eta oroitza-penean zerikusia duten laguntza tipo desberdinen efektuak aztertzen dira, hots, instrukzioenak, eskemenak eta

irudienak. Gainera, laguntza beraz gain, errendimenduan zuzenki parte hartzen duten beste faktore batzuk kontsideratzen dira, hots, sujetuek ikasi behar duten testu tipoa, beren ikasketa baloratuko den forma eta ikasleek izaera indibidual propioak. Honela, lortutako emaitzetatik ondorio nabarmenenak ateratzen dira eta hezkuntza esparruan ukan ditzaketen loturak seinatzen dira. Hamargarren atalean, ikasketaren kalitatea hobea-gotzekoan interes handieneko izan daitezkeen lerro nagusiak proposatzen dira. Hamaikagarren atalean, gehigarriak daude eta hamabigarren atalean bibliografia.

Nola bere egitura epistemologiko-metodologikoagatik hala alde esperimentalagatik fintasun eztietsuz borobil-dutako obra baten aurrean gaude. Ezer ez zaio falta, baina mamizko denean sobrarik ere ez du. Agerpenean lortzen den soiltasunak eta klartasunak testuari ulermena ematen dio eta giza eta gizarte jakintzetan dabilen edozein profesionalentzat onuragarri gertatzen da. Bere irakurketa gomendatzen dugu.

*Jokin Apalategi*